

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO INFORMAZIO POLITIKAK
AHOLKULARITZA JURIDIKOA

1. INFORMAZIO POLITIKA

DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: AHOLKULARITZA JURIDIKOA
<i>Tratamenduaren arduraduna</i>
LAGUNARO, EPSV (aurrerantzean, LagunAro) Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta, 1858. liburukia, 144. folioa, SS-3413 orria Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa) IFZ V20068094 Telefona: 943 79 01 00 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK Datuak babesteko ordezkariaren helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es
<i>Tratamenduaren helburua</i>
Datuak honako helburu hauekin tratatuko dira: • LagunAroren arlo juridikoko zalantzei, kontsultei eta edozein gairi erantzutea eta gai horiek ebaztea. • LagunAro defendatzeko prozedura judizialetan. • Falta espedienteak LagunAroren Estatutu Sozialen arabera kudeatzea eta tramitatzea. • Prestazioei buruzko erreklamazioak kudeatzea. • Kontseilu Errektorean aurkeztutako errekursoak kudeatzea.
<i>Tratamenduaren legitimazioa</i>
Datu pertsonalak, berez, ezarritako harreman juridikoan oinarrituta tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikularen arabera, eta interes legitimoan oinarrituta, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.f) artikularen arabera. Era berean, datu pertsonalak tratatu egingo dira baldin eta erreklamazioak egiteko, gauzatzeko edo defendatzeko beharrezkoa bada, edo auzitegiek beren eginkizun judiziala betetzeko jarduten dutenean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 9.2.f) artikularen arabera.
<i>Datuen jatorria</i>
Interesduna. Hirugarren interesdunak. Hala badagokio, mutualistaren kooperatiba.
<i>Datuak komunikatzea</i>

Datuak jakinaraziko zaizkie legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei eta kontratatutako kanpoko zerbitzu juridikoei, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluekin eta LagunAroren defentsa juridikorako interes legitimoarekin bat etorritik, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.f) artikuluen arabera.

Halaber, kontratu baten gauzapenean oinarrituz falta espediente bat irekitzen bada, mutualistaren kooperatiba bazkideari jakinarazi ahal izango zaizkio datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikuluen arabera.

Era berean, datu pertsonalak LagunAro Servicios S. Coop.ek eta papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresak tratatuko dituzte, bai eta aholkularitza juridikoa behar bezala kudeatzeko behar den beste edozeinek ere, LagunAroren kontura eta haren jarraibideak betez.

Nazioarteko transferentziak

Ez dago aurreikusita datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.

Datuak gordetzea

Datuak gorde egingo dira kontsulta ebaizteko edo aholkularitza juridikoa emateko beharrezkoa den bitartean eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak preskribatzeko aldietan.

Eskubideak

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: dpo@lagunaro.es edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete,, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.

Segurtasun neurriak

Datuak modu konfidentzian tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo lege kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babes barne, arriskuaren arabera segurtasun maila bermatzeko.